

frederik peeters

PILULA **URDINAK**



ASTIBERRI




...DISIDENTZIA...




...DISJUNTIVO...






...DISKOPATIA...



HEMEN DAGO!... DISKORDANTZIA





"DISKORDANTZIA.
IZ... ADOSTASUNIK EZA;
HARMONIARIK EZA...; ADIB:
KOLOREEN HARMONIARIK
EZA"...



DEFINIZIO GEOLOGIKOA ERE
BADAGO: "GERUZA BATZUK
BESTE ZAHARRAGO ETA
HAIEKIKO EZ-PARALELO
BATZUEN GAIÑEAN
AGERTZEA".



...JODE!...
SINESTEZINA DA!...

...SEGURI
ZAUDE HORIEK
DIRELA MEDIKUAREN
HITZAK?...
...

"...BIKOTE
DISKORDANTE
BAT?"





ZUK USTE DUZU,
ZERA... ADOSTASUNA...
HARMONIA FALTA
DUELA GURE
BIKOTEAK?

...HORI,
GEOLOGIA
AIPATU
GABE!



MAITE ZAITUT...
...







...ERRAZ IMAJINA DEZAKET HOGOITA HAMAR BAT URTEKO MORROI BAT, HARRO SAMARRA, LAU ILE URDIN,
BETAURREKO ILUNAK, HIRU EGUNEKO BIZARREAN HAZKA, ESANEZ: "TIRA... BADA KIZU, NEW YORK,
AZKENERAKO, HERRI BAT BEZALAKOA DA..."



...MM... BADA, IMAJINATU GENEVA!...





...BIZI ZAITEZ HAN HOGEI URTEZ, ETA ZALANTZA SORTUKO ZAIZU NOLA EGON DAITEKEEN ORAINDIK INOR EZEZAGUNIK, HAINBESTE AURPEGI EZAGUNEN ARTEAN... AGIAN, HIRIEK ETENGABE SORTZEN DITUZTE EZEZAGUNAK...




...BIZI-ARNAS MOTEL BATEZ...



...ETA, LANTZEAN BEHIN, PERTSONA HORIETAKO BATZUK IRTEN EGÍTEN DIRA MULTZOTIK...



JENDE-SAIL TXIKI HORI EZAGUNA EGÍTEN ZAIZU HASI-HASIERATIK... EZ ZAÍTU HARRÍTZEN KALEAN HAIÉKIN TOFO EGÍTEAK... ETA, USTEKABEAN, MUSIKA ENTZUTEN ARI ZARELA, KONTURATZEN ZARA HAIÉK DITUZULA BURUAN...



UDA... ZINEZ MAITE DUT UDA... DUELA SEI BAT URTE IZANGO ZEN, KANTONAMENDUKO HERRI ABERATS BATEAN...
TXALET BAT AINTZIRAREN ERTZEAN, IGERILEKUAREKIN... GURASOAK BIDAIA IZANGO ZIREN... AFALONDO LIZUN
SAMAR HORIETAKO BAT, NON GENEVAKO GAZTE DIRUDUNAK EUREN PRIBILEGIOEZ GOZATZEN DIREN... GAUA ZEN
ETA BERO ZEGOEN...



EZ DUT GOGORATZEN ZER EGÍTEN NUEN NIK HAN...
TXIRÍPAREN BAT, SEGURUEN... GARAI HARTAN SARRI
GERTATZEN ZÍREN HALAKOAK... HAN EGONGO ZÍREN
GUYVES, GEHIEGÍKERÍA PSIKOTRÓPIKOEN BERMEA...



ALEX, GEHIEGÍKERÍA INTELKTUALEN BERMEA...



...ETA BÍ TXORO AMORRATU, CATÍ ETA GUIRÍ... GUIRÍ
GUYVESEN ARREBA DA... ETA HAIEN ETXEAN GÍNEN.



HORRAINO, EZER BEREZÍRIK EZ... GUSTUKOA NUEN
CATÍ... TXUNDÍTU EGÍTEN NÍNDUEN...



HIRU JAUZITXO, ETA URETAN ZELIDEN... DI-DA BATEAN... ETA ORDUAN... IKUSKIZUN HURA IZAN NUEN... CATÍ UR AZALERA ETORRI ZENEAN...



LOTSAGABE HURA BILUZIK ZEGOEN TIXERTA ZURIAREN AZPIAN



BI GAUZA ESAN NIZKION NEURE BURUARI...




BAT: "ZER NESKA KLASAK EDAN DEZAKE XANPAINA IGERILEKU BATEAN ETA TIXERTA BUSTI BATEKIN, ESTILOA ETA KLASA GALDU GABE?"




BÍ: "JAINKOARREN... A ZE TÍTI EDERRAK!"




GEROAGO, CATÍ GUYVESEKÍN DESAGERTU ZEN, ETA GUITÍ ALEXEKÍN... NÍ NEU GARAI HARTAN NORBAITEKÍN OTE NENBÍLEN, EZ DUT GOGOAN... NOLANAHI ERE, KANAPE BEIX BIGUN-BIGUN BATEAN AMAITU NUEN GAUA...




HEMERETZÍ BAT URTE IZANGO NÍTUEN, ETA HARK, HOGEITA BAT... EZ NEKIEN EZTA NIGAN ERREPARATU OTE ZUEN... SEGURUEN, HÍTZ EGÍNGO GENUEN... ETA TOTELKA EGÍNGO NUEN... GOGOAN DUT NEURE BURUARI GALDETU NÍOLA OSO ANTZEKOAK EDO OSO DESBERDINAK OTE GÍNEN...





BESTE GAU ASKO BEZALA, HURA ERE AHAZTEKO MODUKOA BEHAR ZUEN... BAINA, ZENBAIT ARRAZOIRENGATIK, NIRE NERABEZARO-ONDOKO IKURRETAKO BAT BILAKATU DA...








...BIGARREN ALDIA, ESATERAKO... ALEXENGANA (BESTE ALEX BAT) NINDOAN BATEAN IZAN ZEN...
...URTEBETE BERANDUAGO EDO...








...POLITA IZAN ZEN... XABOI BURBUILA BAT...





URTE BATZUK GEROAGO, EZKONDU ZELA JAKIN NUEN, ETA UMETXO BAT IZAN ZUELA... ERAIKIN BEREKO LAUGARRREN SOLAIRURA JOAN ZEN BIZITZERA... JUXTU ALEXEN ETXE AZPIRA...



BERRIRO EGIN GENUEN TOPO 99KO UDA AMAIERAN... AKORDUAN DAUKAT OSO ZAPUZTUTA NENBILELAKO ORDUAN, OSO ALDARTE TXARREAN... GARAI ZITALA IZAN ZEN...







ETA, AZKENEAN, 2000KO URTEBERRI EGUN HURA HELDU ZEN... ASTEAK ZIREN HORREKIN LARRITUTA NENBÍLELA... ETA, HALAKO GOGOA NUENEZ AFALOSTERIK ARRUNTENA ÍZAN ZEDIN, GUZTIZ LASAITU NINTZEN, ETA BEREZ BILAKATU ZEN GOGOANGARRÍA...



LAGUN MORDO BAT GEULDEN HITZARTUTA GOÍZALDEKO ORDU BATEAN, OSPAKIZUNAK ESKATZEN ZÍTUEN ERROMESALDI ZENBAIT EGIN ONDOREN, GALI OSOA TXERRIEN MODUAN JATEN PASATZEKO...





HAN ZEGOEN CATI, BAKARRIK...
ITZAL BAT BEZAIN APAL...









ETA ZU... ZERGATIK
ZAUDE HEMEN
BAKARRIK, BESAULKIAN,
NAUFRAGO BATEN
ANTZERA?...




GIZONAREKIN IZANDAKO ISKANBILA BATEN
ONDORIOZ, SOLAIRU BAT IGO ETA AKABERA EMAN
ZION EZKONTZARI... PROZESU LUZE BATEN AMAIERA
IZAN ZEN...



ZENBAIT MINUTUZ, HAN ZIREN GUZTIAK IKUSEZIN ETA MUTU BILAKATU ZIREN...








ONDO OLIOZTATUTAKO MAKINERIA EMATEN ZUEN, EZIN HOBETO DOTTUA... KLİK KLAK... KLİK KLAK... EGONEZINIK EZ... TXARRENEAN ERE, ISILUNE NATURALAK.



HANDIK GUTXIRA ELKARTU GINEN BERRIRO, TABERNA BATEAN... ORDURAKO, EZIN ESAN ZORIAREN ERAGINA OTE ZEN EDO MEKANIKA KONTUA...










SEGUNDO BATEZ TOKIA EGİN NIEN, NEURE BURUAN ETA BIHOTZEAN, SENTIMENDURIK MUTURREKOENEI...



KLIK...



KLAK...



KLIK...




BEREHALA NAGUSITU ZEN PARTITURA, INSTRUMENTUAK DESAFINATURIK EGON ARREN UNE BATEZ...



TÍPO SEGUURAREN PLANTAK EGİN NITUEN, NOLA JOKATU BANEKI BEZALA...






BIHARAMUNEAN, GOIZ ALDE EGİN ZUEN...



TXIRRIIN



...EGUERDIAN, JENDEZ BETE ZITZAIÐAN SUKALDEA... HAN BILTZEKOAK GINEN DENOK... LAU EGUNETARAKO NINDOAN ANGULEMARA...



UUU... HORI DUK HORI AURPEGI TXARRA, MOTEL!...

MM...

EI! PASTA EGINGO DIAGU...

BAI, BAI... UZTAK... NEUK EGINGO DIAT...

NESKA BATEKIN EMAN DUK GAUA, E?

EZ... EZ DIAT EZER ESANGO!...